



6 mantangorri

CO

AZOKA



DISKOA

Izenburua: '69 abesti jolasteko'.**Egilea:** Hik Hasi. **Edukia:** 69 abesti, hamabost ataletan banatuta. Haur-jolasen abestiak I - II eta IIIan agertzen ziren abestien bilduma da.**Iraupena:** 75 minuto. **Argitaratzailea:** Hik Hasi.**Joxe Mari Auzmendi** HIK HASI-KO KOORDINATZAILEA

«Haurrak gaztelaniaz jolasten zirela ikusita animatu ginen discoa prestatzera»

Euskaraz jolasteko hamaika proposamen biltzen da Hik Hasi elkartearren discoan. Orotara, askotariko jolasten aritzeko ia hirurogeitik gora abesti daude. Abestiak entzun eta haien letrak irakurtzeaz gain, nola jolastu azaltzeko azalpen txiki bat ematen da. Euskaraz bizi eta jolasteko discoa da *69 abesti jolasteko*.

Ez da disco berria, baina izugarrizko arrakasta izan du. Zergatik?

2008an argitaratu genuen discoa, eta 2011rako agortu egin zen. Denbora batez zer egin pentsatzen aritu ginen, eta, azkenean, iazko Durangoko azokarako berriro argitaratzea erabaki genuen. Eta izugarrizko arrakasta izan du. Zerga-

tik? Izan liteke abestiak oso sailkatuak agertzen direlako eta erabiltzeko oso praktikoa delako. Hala, gehien interesatzen zaion abestia edo jolasa har dezake erabiltzaileak. Nik uste dut hori dela discoaren ekarpenik handiena eta jendea erakartzen duena.

Zenbat abesti daude?

Orotara, hirurogeitik gora abesti biltzen ditu discoak, eta hainbat ataletan sailkatuak daude: bidaietarako jolasak, zott egitekoak, txa-loetakoak, korroan aritzekoak, zabuan kantatzekoak, txikientzako, gómatakoak, lurrekoak, soka saltoan aritzekoak, ilaran jartzekoak... Hainbat arlotarako euskarazko abesti oso gutxi zeuden, eta irakasle batzuk elkartuta asmatu genituen. Diskoko abesti asko, beraz, guk geuk asmatutakoak dira, baina badira betiko abestiak ere.

Abestiaz gain, nola jolasten den ere azaltzen duzue.

Hori da, bai. Discoak liburuxka bat dauka, eta, hor, abestiaren letra osoa agertzeaz gain, jolas horretan nola aritu edo ibili ere zehazten da. Horrez gain, abestia musikatua agertzen da.

Animatzen zarete beste disco bat prestatzera?

Euskaraz ikasi arren, eskolako patioan edota kalean haurrak gaztelaniaz jolasten zirela ikusten genuen, eta horregatik animatu ginen discoa prestatzera. Discoa aurkeztu genuenean, hainbat ikastaro eman genituen ikastetxeetan, nola jolastu erakusteko. Gerora, baina, jolasak lantzen hasi zen Urtxintxa eskola. Bi talde gauza bera lantzen aritzek ez zuela zentzurik ondorioztatu genuen. Hala, Urtxintxaren esku utzi genuen lanketa hori. Urte batuetara, arlo horretan hutsune bat sumatuko bagenu, berriro helduko genioke gaiari.




LIBURUA

'Sugoitxoren ametsa'

Sugoitxo kobazulo batean bizi zen gurasoekin. Gurasoek hegan egiten irakatsi zioten, eta baita ahotik sua botatzen ere. Sugoitxok, baina, nahia zuen abestu ahotik sua bota baino. Gurasoek ez zuten ulertzan, eta, hasieran, haseurretu egiten ziren, semea ez zelako beste herensugeak bezalakoa. Sugoitxo ez zegoen gustura, ordea. Lotsari buruzko istorioa da, eta Senti-puinak bildumaren hamabigaren izenburua.

**Begoña Ibarrola
Santiago Aguado**
Argitaletxea: **Elkar**



LIBURUA

'Basoan barrena'

Kontakizun honetako mutikoa basoan barrena doa, Txanogorritxo amonaren etxera bezala. Bidean, askotariko arrisku eta ezustekoak topatuko ditu mutikoa ere, Txanogorritxok bezala. Nora ote doa, baina, mutikoa? Amona bisitatzen? Beste lekuren batera? Onik iritsiko ote da doan lekura? Lortuko ote du helburua? Manu Lopez Gaseñik euskaratu du istorioa.

Anthony Browne
Argitaletxeak: **Pamiela eta Kalandraka**